

Mahatma Gandhi

Deia, 1983-06-15.

Filme baten imajinen bidez gai gara gaur Gandhi nor zen esateko. Hurbiletik ezagutu dut!

Hona, bi hitzetan, masa-komunikabideek gudan sortzen duten ilusioa. Gauza bera sortarazten digu idazlanak eta irratisaioak, baina diferentzi handi batekin, hala ere: *irakurbidez* gureak, pertsonalak, dira imajinak, hausnarketa eta ulerkuntza. *Entzunbidez*, irratisaioak hausnartzeko beta gutxiago ematen digu, momentuko inpresioa bera geratzen zaigu lehen, eta gero dator zalantzako hausnarketa, eta gehienetan irakurri arte ez dugu entzundakoa ulertu dugunaren segurtasunik.

Hau da *letraren* tradizio majikoa.

Baina filmea da gertakariaren hurbilen jartzen gaituen komunikabidea: dena *ikusi* eta *entzun* egiten dugu.

Gertakari batetan lekuko bagina bezala.

Dena entzun eta dena ikusteko gaitzen gaitu eta gehiago oraindik, gertakariaren lekuko izatea suertatu balitzaigu baino "errealismo" haundiagorekin!, kamara arduratzen baita gure begi-belarriak *behar duten tokian* egon daitezen, (batzuetan begia hemen eta belarria han!), aditasun egokiarekin.

Eta nago, ez, filmen aurka, aitzitik alde nago, maite behar ditut, egunkaria, liburua eta irratisaioa bezala. Baina kritikoki irakur-ikus-entzun behar genituzke denak, paperen eta zeluloidearen jostailu bihur ez gaitzen.

Propagandaren mende.

Hemen azpimarratu nahi nukeena zera da: konplejidade hau dena asumitu, hartu, behar dugula, *Mahatma Gandhi* filme ederraren kasuan bezala historikoa den zerbait ikusten dugunean, eta ez, sinplifikazio bidez ondorio sinpleegiak atera: Gandhiren pakezaletasuna ez da bigunkeria, nire ustez, Indiako egoera bereziaren erantzun burutsu eta argia baizik. Bestalde, ez dut uste, filmea gure herriko bigunkeriari eragin nahiez inork dabilenik.

Denok ba dugu hontaz eta hartaz asmo ezberdinik, noski.

Baina nire ustez, filmean gertatzen direnak ezin ditugu Euskal Herriratu: beste mundua da hura, besteak zantzetaren iturri eta baldintzak, oso bereziak sinesmenak eta sineskeriak, eta baita tradizioak, ohiturak ere. Berdin diot aurreritziez, prejuizioez. Guk geuk ere ba ditugu hoiak denak, baina geureak, eta geuk guk garbi bizi dugun filme bizi honetan gertatzen ari zaizkigunak, geuk, gu hauk konponbidetako ahaleginetako lanaz bete behar ditugunak.